



Kultura  
Zientifikoko  
Katedra  
Cátedra  
Cultura  
Científica



## BIDEBARRIETA ZIENTIFIKOA

Hitzaldi-solasaldia Laura Vela-Plo ikertzailearekin

# Gizona ala emakumea? Zientziak dioena generoaren pertzepzioari buruz euskaraz eta gaztelaniaz

**Bilbon, 2026ko apirilaren 8an.** Mundua ikusteko dugun moduan zer eragin du hizkuntzak? Eta pertsonak irudikatzeko eran? Hizkuntza ez da gizartea islatzen duen tresna bat bakarrik, moldatu ere egiten du eta gizartea bera eraldatzen lagun dezake.

Maskulino generikoa bezalako hizkuntz-esapideen erabilerak, edo bikoizketak, izen epizenoak edo –e neomorfemaren erabilera bezalako baliabide inklusiboek eragin zuzena dute generoaren pertzepzioan. Horrez gain, beste hainbat faktorek ere pisu handia dute testuak interpretatzeko garaian, euskaraz zein gaztelaniaz: mezua jasotzen duenaren generoak, bere sexismo mailak edo feminismoarekiko eta hizkera inklusiboarekiko duen jarrerak.

Hizkuntzak generoaren pertzepzioan duen garrantzia aztertzeko asmoz, **Laura Vela-Plo** hizkuntzalariak eta EHUko Filologia eta Historia saileko irakasleak “Gizona ala emakumea? Zientziak dioena generoaren pertzepzioari buruz euskaraz eta gaztelaniaz” hitzaldi-solasaldia eskainiko du apirilaren 15ean, asteazkena, 19:00etan, Bilboko Bidebarrietako Liburutegian. Saioa euskaraz izango da eta aldi bereko itzulpena egongo da gaztelaniara.

1.500 parte-hartzaile baino gehiagorekin egindako hiru ikerketen emaitza nagusiak aurkeztuko ditu hitzaldian: bi gaztelaniaz, EHUko ikasleekin eta publiko orokorrarekin; eta hirugarren bat euskaraz, EHUko ikasleekin bakarrik. Ondorioen artean, agerian gelditu da hizkuntzak eragina duela pertzepzio sozialean, maskulinoan egindako adierazpideek interpretazio maskulinoak eragin ohi dituztela, eta formula inklusiboek genero-alborapena murrizten laguntzen dutela bi hizkuntzetan.

Hitzaldi-solasaldia [EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) eta Bilboko Udaleko Kultura sailaren mende dagoen [Bidebarrietako Liburutegiak](#) antolatzen duten *Bidebarrieta Zientifikoa* hitzaldi-zikloaren parte da. Sarrera doan izango da, eserlekuak bete arte. *Streaming* bidez ere jarraitu ahal izango da, [Bidebarrieta Kulturgunea](#) YouTube kanalaren bidez.



Kultura  
Zientifikoko  
Katedra  
Cátedra  
Cultura  
Científica



## Hizlaria

[Laura Vela-Plo](#) Hizkuntzalaritzan doktorea da (Euskal Herriko Unibertsitatea). Gaur egun irakasle atxikia da Filologia eta Historia sailan, Hizkuntzalaritza Teorikako Taldeko ([HiTT](#)) ikerlartzailea, eta EHUko Letren Fakultateko Ikasle eta Praktiketarako dekanordea. Bere ikerketa-arloen artean, hizkuntzaren eta pertsonen generoaren irudikapenaren arteko harremana nabarmentzen da; zehazki, generoaren pertzepzioaren eta hizkuntza inklusiboarekiko jarreraren azterketa.

--

**Hitzaldi-solasaldia:** "Gizona ala emakumea? Zientziak dioena generoaren pertzepzioari buruz euskaraz eta gaztelaniaz"

**Hizlaria:** Laura Vela-Plo Hizkuntzalaritzan doktorea eta EHUko irakaslea da.

**Data:** apirilaren 15ean, asteazkenean.

**Ordua:** 19:00etan.

**Lekua:** Bidebarrietako Liburutegia (Bidebarrieta kalea 4 – Bilbo).

**Hizkuntza:** euskara. [Aldi bereko itzulpena gaztelaniara].

**Streaming:** bai. [Bidebarrieta Kulturgunea](#) (YouTube).



Kultura  
Zientifikoko  
Katedra  
Cátedra  
Cultura  
Científica



## BIDEBARRIETA CIENTÍFICA

Charla-coloquio con la investigadora Laura Vela-Plo

### ¿Hombre o mujer? Lo que nos dice la ciencia sobre la percepción del género en euskera y castellano

**Bilbao, 8 de abril de 2026.** ¿Qué influencia tiene el lenguaje en nuestra forma de ver el mundo? ¿Y en la manera en la que imaginamos a las personas? El lenguaje es una herramienta que no solo refleja la sociedad, sino que también la moldea y puede contribuir a su transformación.

Fórmulas lingüísticas como el uso del masculino genérico o recursos inclusivos como los desdoblamientos, los sustantivos epicenos o el uso del neomorfema –e influyen de manera directa en la percepción del género. Además, factores como el género de quien recibe el mensaje, su nivel de sexismo o su actitud hacia el feminismo o el lenguaje inclusivo desempeñan un papel clave en la interpretación de textos, tanto en euskera como en castellano.

Para analizar la importancia del lenguaje en la percepción del género, la lingüista **Laura Vela-Plo**, profesora del departamento de Filología e Historia de la EHU, ofrecerá la charla-coloquio “Gizona ala emakumea? Zientziak dioena generoaren pertzepzioari buruz euskaraz eta gaztelaniaz” (¿Hombre o mujer? Lo que nos dice la ciencia sobre la percepción del género en euskera y castellano) el próximo **miércoles 15 de abril a las 19:00 horas** en la Biblioteca de Bidebarrieta de Bilbao. La charla se impartirá en euskera y contará con traducción simultánea a castellano.

Durante la sesión, presentará los principales resultados de tres estudios experimentales realizados con más de 1500 participantes: dos de ellos en castellano, con estudiantes de la EHU y público general, y un tercero en euskera, solo con alumnado de la EHU. Entre otras conclusiones, estas investigaciones revelan que el lenguaje influye en la percepción social, que el uso de expresiones masculinas tiende a generar interpretaciones también masculinas, y que el empleo de fórmulas lingüísticas inclusivas en ambas lenguas contribuye a reducir el sesgo de género.

La actividad forma parte del ciclo de conferencias *Bidebarrieta Científica*, impulsado por la [Cátedra de Cultura Científica de la EHU](#) y la [Biblioteca de Bidebarrieta](#), entidad dependiente del área de Cultura del Ayuntamiento de Bilbao. El evento se podrá seguir tanto de manera



Kultura  
Zientifikoko  
Katedra  
Cátedra  
Cultura  
Científica



presencial como vía *streaming* a través del canal [Bidebarrieta Kulturgunea](#) (YouTube). La entrada es libre hasta completar aforo.

## La conferenciante

[Laura Vela-Plo](#) es doctora en Lingüística (Universidad del País Vasco). En la actualidad es profesora adjunta del departamento de Filología e Historia de la EHU, investigadora del Grupo de Lingüística Teórica ([HiTT](#)) y vicedecana de Alumnado y Prácticas de la Facultad de Letras. Entre sus áreas de investigación destaca la relación entre el lenguaje y la representación del género de las personas; en concreto, el estudio de la percepción del género y de las actitudes hacia el lenguaje inclusivo.

--

**Charla-coloquio:** "Gizona ala emakumea? Zientziak dioena generoaren pertzepzioari buruz euskaraz eta gaztelaniaz" (¿Hombre o mujer? Lo que nos dice la ciencia sobre la percepción del género en euskera y castellano)

**Conferenciante:** Laura Vela-Plo es doctora en Lingüística y profesora de la EHU.

**Fecha:** miércoles, 15 de abril.

**Hora:** 19:00 horas.

**Lugar:** Biblioteca de Bidebarrieta (Calle Bidebarrieta, 4 – Bilbao).

**Idioma:** euskera. [Traducción simultánea a castellano].

**Streaming:** sí. [Bidebarrieta Kulturgunea](#) (YouTube).